

## ARAZO-EGOERA

Izenburua:

***Gazte gara gazte eta ez gaude konforme. Gazte lokalak eta arauak zertarako?***

Ikasgaia:

Euskara eta literatura

Maila:

DBH4 / Batxilergoa 1

### Testuingurua

Ehunka dira, eta fenomeno sozial baten protagonista: gazteek alokatutako lonja, bajera, txoko, lokalak. Zenbat eta handiagoa kuadrilla, orduan eta merkeagoa alokairua; horrela zabaldu dira herri guztietara, aisialdirako aukera berri gisa.

Baina gazteen berrikuntza sozialek, ostera ere, legeari aurre hartu diote. Fenomenoa ugaritu eta arazoak sortu dira: bizilagunen salaketak udaletxe guztiek jasotzen dituzte. Ez da arazo larririk izaten normalean, zarata kontuak izaten dira gehienetan. Baina izaten dira liskar txikiak, suteak...

Herri batzuek beren bideak topatu dituzte gazteek alokatutako lokalak arautzeko: Durangon ordenantza bat sortu dute, Getxok gazte lokalen jarduera arautu du, Zarautzen ere udala hasi da gazte lokalei buruzko lanean...



*Irudiaren jatorria: Oñatiko Udala. Haur eta Gazteria*

### Arazoa

Gure herrian ere udala gogor jarri da lonjak eta lokalak gazteek alokatzearekin eta udal ordenantza bat ateratzeko zorian da. Bertan, arau minimo batzuk ezarri nahi ditu. Horretarako, gazteen iritzia jakin nahi du.

Zer eskatu beharko luke udalak, zuen ustez? Zer onartu beharko luke eta zer ez?

### Xedea

Ikasleen intereseko gaien aurrean iritzia arrazoitua adieraztea testu koherente eta kohesionatuen bitartez.

## Helburuak

- Informazioa bilatzea, hautatzea eta modu kritikoan interpretatzea.
- Iritzi-artikuluen ezaugarriak ezagutzea.
- Argudio-motak aztertzea.
- Iritzi arrazoitua ematea aldeko eta kontrako argudioak adieraziz.
- Talde-lanean aritzea, modu kooperatiboan lan eginez.
- Sarea modu eraginkorren erabiltzea informazioa bilatzeko eta hautatzeko, baita elkarrekin komunikatzeko ere.
- Elkarbizitzarako arauak duten garrantziaz ohartzea.
- Autoerregulazio- eta ebaluazio-estrategietan trebatzea.

## Ataza

Taldeka, gai bati buruzko iritzi kritikoa idaztea eta ikaskideen aurrean azaltzea. Gero, talde handian, gaiaren aldeko iritzi bateratuak adostu eta udalean aurkeztea.

## Jarraibideak

- Arazo-egoera aurkeztu eta planteamendua zehaztu.

Talde handian

- Iritzi testuen ezaugarriak aztertu, eredu bidez eta behaketa-orriak baliatuz.
- Argudioak adierazteko hizkuntza-egiturak jorratu.

Lauko taldean

- Gaze lokalei buruzko ordenantzak irakurri. Horrez gain, gaiaren inguruko lau albiste aztertu.
- Datuak bildu eta gaiaren aldeko eta kontrako argudioak garatu.
- Testua planifikatu eta idatzi.

Talde handian

- Testua idazteko kontrol-orria antolatu talde handian.
- Zirriborroen zuzenketa egin koebaluazioaren bidez, kontrol-orriak baliatuta.
- Testuak irakurri eta iritziak defendatu taldekideen aurrean.
- Talde guztien iritziak jaso.
- Ikastaldekoen iritzi bateratuak aurkeztu udalean.
- Proiektuaren eta ikaskuntzaren talde-ebaluazioa egin.